

Josune Diez Chinchurreta

A maila • **Aipamena**

Josune Díez Chinchurreta naiz, 17 urte ditut eta ordiziarra naiz. Oianguren institutuan ikasten dut. Txikitatik, hitzak izan dira nire lagunik onenak, sostengua izan dira, abaroa. Nire irudimena eta emozioak aineratzeko hegala dira idazmena eta irakurmena, mundu berri bat irudikatzeko aukera paregabea. Natura ere, batez ere ozeanoa, izugarri maite dut. Itsasoari eskainitako olerki honetan, berak sentiarazten didana azaldu nahi izan dut. Espero gustukoa izatea!



ITSASOARI

Itsasoari,

Neure buruarekin topo egin dut
itsas bazterrean
labarraren magalean.
Itsasoak laztantzen ditu nire oinak,
itsasoak kulunkatzen du nire arima,
itsasoak bustitzen du nire gorputza.

Goitik behera blaitu nau,
goitik behera astindu nau,
goitik behera umeldu nau;
nire hankartea bere aparretan hezetu da.

Segundo gutxitan bat izan gara,
neure maskorra aurkitu du,
aparreko kilimetan galdu gara;
oilo-ipurdia da gure tatuajea.

Une batez olatuaren taupadak neure egin ditut.
Une batez egunez izarrak ikusi ditut haren sabelean.
Une batez gatzaren gozamina dastatu dut.
Gozamenari egin dizkio lo kantak.

OLERKIA

Gustura sentiarazi nau,
beraren babesean,
dikotomiaren zalantzan,
itsasoaren balantzan,
uraren besoetan,
musu gazietan, umeletan.

Isiltasuna da nabari,
kaioen karra-karraren xuxurla.
Itsasbeherarekin batera,
tirainak maisu dira
ur-ertza hauspeatzen.

Itsasoak gehiago sartzeko gonbita luzatu dit.
Barruraino sartzeko eskatzen dit.
Hondarra botaz akuilatzen nau.

... eta banoa
...harengana
...sakonera.

Kulunkatu egiten nau.
Lasai laztandu,
musuak eman.
Loak hartzen nau,
begiak itxiarazten dizkit.
Agur esaten diot ametsetan,
baina bere besoetan jarraitzen dut biharamunean.

...pozik
...bare
...gogotsu.

Bertan jarraituko dut,
nahi dudan arte,
behar dudan arte,
nire sehaska partikularrean.

Bitartean,
bera izango da nire zaindari,
nire jagole,
nire lagungarri.

Itsasoa,
bere handitasunean,
itsasoa.